



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZOA: ELIZALDE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-06	19:05	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Agustin Lekuona, Goratz Gezala eta Olaia Lasa		
Herritarrak:	Euskaraz: 9	Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3	Gizonezkoak: 6	
	<30 urte:	31-50 urte: 2	51-65 urte: 6

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarraren nondik norakoak eta aurkezpen txiki bat egin da.
Legelaldiaren balorazioa	<p>Legelaldian aurrera eraman diren proiektuen berri eman zaie auzotarrei.</p> <p>Kastroko iturria berritu den galdetu du auzotar batek, ondorea baita. Erantzun zaio iturri hori gaur egun egoera onean dagoela.</p> <p>Urkabe baitako sarrera irteerak nola doazen jakin nahi dute auzotarrek. Kotxeentzako sarrera Mosatik gora joanda izango da, oinezkoentzat berriz gaur egun ezagutzen dugun sarreratik. Sarrera irteerak karretera printzipaletik egiteak arriskutsuak dakartzala adierazi dute teknikoek eta rotondarik ez da sarten eremu horretan, hori da Mosatik barrena sartzearen arrazoa. Bertan 25 etxe dotazionalak izango dira eta 15 sozialak.</p> <p>Gurutzeko bidegorria, hotelaren azpialdeko parkinetik abiatzen da, txakolindegiko bideraino iristen da eta ondoren gaur egun jada asfaltatuta dagoen bideari jarraituko zaio.</p>
2023ko aurreikuspena	Datorren urteari begira aurre ikusten diren aurrekontuen berri eman da.



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>Inbertsioak zertarako erabiliko diren jakin nahi du auzotar batek. Adierazi zaio auzo batzarrak horretarako egiten direla, zertan inbertitu definitzeko. Oraindik itxi gabe daude aurrekontuak, aldaketak egon daitezke urte amaiera arte.</p>
Auzoa	<p>Arrieta depositua udalaren lurra den galdetzen du auzotar batez, baiezkoa erantzuten zaio. Gainkalde guztia aprobetxatuko da plakak jartzeko eta bertatik ateratako energia plaza inguruko eraikin publikoetako instalakuntzen energiarako erabiliko da. Galdetu da etxe pribatuetarako aprobetxatuko ote den. Udalak ezin ditu etxe pribatuak hornitu, horretarako dago martxan Goienerrekin kooperatiba sortzeko proiektua, edozein herritarrek hartu dezake parte.</p> <p>Plaza inguruan zuhaitz falta nabaritzen da, itxura oso "ormigonatua" da. Ikusten da landetxeko plaza berritzeko garaian berde guenak kontuan izan dituela udalak eta beste eremuetan berdina egitea eskatzen da. Izan ere, kanposantuko horretan ere zuhaitza bota da espaloia berritzeko eta ondoren ez da besterik erein. Zuhaitzekin dagoen beste arazoetako bat da haizeteen ondorioz zuhaitz handiak txikizioak eragiten dituztela. Horregatik garrantzitsua da zuhaitzen tamaina kontuan hartzea. Botatzen diren zuhaitzak arrazoi zehatzak daudenean bakarrik botatzen dira, gehienetan segurutasun neurriak izaten dira hizpide.</p> <p>Hobarian inguruan uraren tasari dagokionez. Famili ugarien kasuan hobaria ematen da tasa askotan, uraren tasan ere hobaria egitea eskatzen da familia ugariarentzat.</p> <p>Mugikortasun eta trafikoa Elizalden. Momentu honetan Altzibarren egin den esfortzua baloratzen da. Plazan ostiral eta larunbatetan dagoen jende pilaketekin arrisku gune bihurtu da plaza, nahiz eta dena seinalizatua egon eta oinezkoek beren bidea eduki, jende batek autoan ez du deus errespetatzen.. Aukera asko daude hori doitzeko, ordutegiz itxi, ... baina bada kezka sortzen duen zerbait.</p> <p>Plazan ematen diren jende pilaketaren inguruan beste hausnarketa bat ematen da: Kultur ekitaldi ia denak elizalde auzoan izaten dira herri honetan eta badira beste auzo batzuk euskara erabili murriztagoa dena eta bertako haurrak ez dira etortzen plazako ekitaldietara, hortaz irtenbidea izan daiteke kultur ekitaldi hauek beste auzoetara eramatea.</p>

Beste alde kanpotik datozen herritar berriei harrera programa bat pentsatzea jartzen da mahai gainean, bai mendi buelta bat emanaz, diru laguntzak azalduz,...saretuz bertako eta kanpotik etorritako herritarrak. Oinarrizko informazioa jaso dezaten, zabor bilketa dela etab.

Udal autoak geroz eta gehiago dira plazan goizean zehar. Udaltzainen bi kotxe, mantenuko langileak,... auto hauek plazan egon beharrean aukera izan daiteke euskal herria plaza azpian erreserbatuta dauden plazetan aparkatzea, ulertzen horretarako direla.

Haur txikientzat parke estalia eskatzen da inguruko herriak daukaten bezala. Gaia mahai gainean dagoela erantzuten zaio, nahiz eta aurreikusten zehatzik ez izan.

Euskal Herria parkean putzua egiten da euria egin ondoren eta putzu hori hor egoten da bi edo hiru egunez. Badirudi arazoak hodiesan dagoela eta konponketan egiteko asmoa dago.

Guraso geroz eta gehiago dira eszedentzia edo murrizketa bidez haurra haurtzaindegira eraman beharrean gurasoekin hezitzeko autua egiten dutenak. Ludoteka goizez irekita egoteak asko lagunduko luke guraso hauen egunerokotasunean. Gaur egun baimen bidez egin daiteke ,baina zerbait egonkorra izan dadin eskatzen da.

Kontzejupe plaza 6,7 eta 8 portaletan lurra beheratzen ari dela dirudi, aldapa inguruan. Udalak begiratzeko konpromezua hartu du

Ondarea; Ibergain parkeari beste buelta bat eman beharko litzaiokeela uste du auzotar batek, natur ekipamenduz osatu haurrentzat zeren eta eremu hori infrabalaratua eta infraerabilia dago.

Txakur parkea egingo den edo ez galdetzen da baina gaur egun udalak argi ez duen gaia da.

Ibergain parkea eta kiroldegira doan aldapa bereizten duen pareta hori kentzea aztertzeke eskaera luzatzen da, baranda mantenduaz, beharrezkoa delako.

Arragua, Lartzabal tartean dagoen trafikoa gaur egun jasan ezina da.

Udaletik autopistako peajeak kentzeko eskaera luzatu beharko lioke Aldundira.

Elikadura burujabetzan inguruan laboreri eskatu zen, behemendiren bitartez, ikastetxetako jangeletako balorazio bat eta horren emaitza jasotzen duen txostenik ez duela jaso dio elizaldeko guraso taldeko kide batek. Hori nola



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	dagoen galdetzen da. KM0ren helburuaren bila dabilta guraso asko eta horretarako ea ekoizpen indar hori dagoen jakin behar da.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,62
bilera ongi gidatu da	8,5
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,37
Auzotar kopurua	3,25
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,5
Saioa probetxugarria izan al da?	7,37
Egunaren egokitasuna	7,5
Orduaren egokitasuna	7,37
Lekuaren egokitasuna	8,75